

6) **BEZEROEKIKO HARREMANA**

KUJY SL enpresak ez du bezeroekin auzer aurreko salmenta egingo. Gu izango gara hornitzailearen eta bezeroaren arteko bitartekariak. Bezeroari arreta emateko eremu bat izango dugu, eta hornitzaileen eta bezeroen eskura egongo gara edozein arazo edo zalantza konpontzeko. Arreta hau telefonoz eta email bidez egin daiteke.

Bezeroek zein hornitzaileek nekazari eta abeltzainen bitartez egingo ditugun auzer aurreko prestakuntza-ikastaroetara aurkezteko aukera izango dute. Ikastaro horiek negozioan hasteko zein ikastaro didaktikoak egingo dituzte beren enpresarekin zerikusia duten hainbat gairi buruz.

Blog-ak komunitate forma izango du. Bertan bai nekazariak, bai guk, bai bezeroek beraiek ere ezbaiak argitu ditzakete.

Bezeroekiko harremana gure web-orrian hasiko da eta honen bitartez bai inskripzioen, bai kupoi txartelen, bai bazkide txartelean bidez lotura sortuko da.

Erlazio hau malgua izango da; hau da, ez dugu izango egonaldi betebeharririk bazkide txartela edo inskripzioetan erakargarriagoa izanda modu honetan bezeroentzat.

Web orriak bezeroen, nekazarien edo abeltzainen eta hornitzaileen kontaktu-datuak gordeko ditu (telefonoa, helbide elektronikoa...), eta, horrela, hileru eguneratzeak egin ahal izango ditu. Eguneratze horrek aldizkari birtualaren formatua izango du, eta honako hauei buruzko informazioa jasoko du: emango diren hurrengo ikastaroak, hautatutako produktuekin datozen denboraldietako zerbitzuak edo uztak, lehengaien edo laboreen beharpenak, hornitzaileen, nekazarien eta abeltzainen bizileku-aldaketak, etab.

